



1

POBREZIA DESAGERTZEA

POBREZIA DESAGERTZEA



HELBURUA:

Pobrezia mota guztiak desagerraraztea.

1 GJH honetan kolektibo jakin batzuen kalteberatasunari aurre egin eta gizarte-babesa eta oinarrizko beharrak asetzeko baliabideak eskaintzea eta bermatzea da helburu nagusia, baita herritarren eta herriaren ongizatea eta bizi-kalitatea hobetzea ere.

Horretarako ondorengo arloak lantzen dira...

- Herritarren egoera sozio-ekonomikoa
- Egoera zaurgarrian dauden pertsonen laguntzeko eskaintzen diren baliabide, programa eta zerbitzuak

Garapen Jasangarrirako **1. Helburuak** lantzen dituen arloak kontuan hartuz, jarraian zehazten diren GJH izango ditu lankidetzaren eremu gehien:



ZEIN PUNTUTAN DAGO ZARAUZ?

Gizartearen ongizatea eta pertsonen duintasuna bermatzeko ezinbestekoa da behar ekonomikoan aurkitzen diren pertsona kalteberen eta bazterkeria arrisku egoeran egon daitezkeen pertsona eta familien egoera kontuan hartzea eta hauei aurre egiteko neurriak ezartzea.

Herritarren egoera sozio-ekonomikoa

Zarauzko biztanleriaren baliabide ekonomikoak, batez besteko errenta pertsonala kontuan hartuz, eskualdeko, Gipuzkoako, zein EAEko batez bestekoak baina altuagoak badira ere, bazterkeria egoeran edo egoera zaurgarrian dauden familiak ere badaude.

BATEZ BESTEKO ERRENTA PERTSONALA (€)

	2015	2016	2017	2018	2019	Δ 2015-2019
EAE	19.968 €	20.295 €	21.083 €	21.458 €	22.601 €	13%
Gipuzkoa	20.669 €	21.256 €	22.086 €	22.605 €	23.756 €	15%
Urola Kosta	20.827 €	21.267 €	22.234 €	23.004 €	24.613 €	18%
Zarauz	21.890 €	22.399 €	23.366 €	24.081 €	25.254 €	15%


Iturria: Eustat

POBREZIA DESAGERTZEA


Gizarte bazterkeria egoeran egon daitezken pertsona edo familien egoera neurtzeko erabiltzen diren adierazleak kontuan hartuz, Zarautzeko ratioak aztertu dira eta hauek EAEko baina nabarmenki baxuagoak direla ikusi da:

- **Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta (DBE)** baliabide nahikorik ez duten pertsona eta familien oinarriko beharrei erantzuteko laguntza dela kontutan hartuz, aipagarria da Zarautzeko ratioak Gipuzkoa eta EAEkoak baina **nabarmenki baxuagoak** direla, izan ere Zarautzen 1000 biztanleko ia 9 onuradun daude, Gipuzkoan 17 eta EAE aldiz, ia 24 onuradun (2021 urtea). Zarautzen DBE jasotzen duten emakumeen proportzioa gizonezkoena baina nabarmenki altuagoa da, %11,3 eta %5,9 izan baita 2021ean hurrenez hurren. Positiboa da baita ere onuradunen proportzioa egonkor mantendu dela azken urtetan, beheranzko joera txiki bat ikus daitekeelarik. Honela, 2021ean 239 pertsonak jaso zuten Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta.
- **Gizarte Larrialdietarako Laguntzen (GLL) onuradunei** dagokionez onuradunen kopurua egonkor mantendu da azken urtetan. 2020 urtean onartutako eskaerak zertxobait gora egin bazuten ere, 2021ean berriz ere aurreko urtetako baloreak eman dira eta 167 eskaera izan dira onartuak, gehiengoa (%65a) emakumezkoak izan zirelarik.

Aipatzeko da aurrekontuari dagokionez 2019 eta 2021 urteen artean %6 igo dela GLL aurrekontua, nahiz eta onuradunen kopurua oso antzekoa izan eta udalak baldintzak betetzen dituzten eskaera guztiei erantzun diela. GLL laguntzen gehiengoa alokairuak pagatzeko erabiltzen da (%32), %20 inguru energiaren faturekin lotuta dago, %20 mantenurako eta %20 premiak asetzeko 2021 urtean.



Iturria: Udalmap



Iturria: Zarautzko Udala

POBREZIA DESAGERTZEA

Udalak eskaintzen dituen zerbitzu eta baliabideak


Zarauzko Udalak behar ekonomikoan aurkitzen diren, pertsona kalteberen eta bazterkeria arrisku egoeran egon daitezkeen pertsona eta familiei zuzendutako zerbitzu eta baliabide desberdinak eskaintzen ditu, ondorengo helburuarekin:

- Eskubide eta baliabideei buruzko informazioa eman, balorazioa egin eta orientatzea eta egoerari aurre egiteko prestazio eta zerbitzuak abian jartzea

Helburu hauek lortze aldera, hauek dira udalak eskaintzen dituen **oinarrizko Gizarte zerbitzuetako baliabideak**:

- **Oinarrizko Gizarte zerbitzuetako informazio, orientazio eta arreta Zerbitzua**, egoera bakoitzaren azterketa eta diagnostikoa burutzen da, pertsona eta familiei beraien egoerari egokitutako arreta plana diseinatuz eta egoerari aurre egiteko prestazio eta zerbitzu egokienak eskainiz.
- **Prestazio ekonomikoak**: Gizarte larrialdietarako laguntzak, Banakako Udal laguntzak, Mendekotasunari lotutako prestazioak eta bestelako prestazioak.
- **Eskuhartze soziohezitzailea**, bazterkeria arriskuan edo/eta mendekotasun arriskuan dauden pertsonen zuzendua, eguneroko gaitasunak garatzeko eta autonomiaren bidez garapen pertsonalean eta sozialean laguntzeko tresnak eskainiz.
- Bazterkeria arrisku egoeran dauden pertsonen zuzendutako **tutoretzapeko etxebizitzak**.
- **Hotzaren babeserako protokoloa eta harrera Zerbitzua**, zeina azken negualdian eskaini den Zarautzen, tenperatura 4 gradutik beherakoa izan denean. Hala ere, zerbitzu honek apenas erabiltzailerik izan ez duela aipatu behar da.
- Europako fondoetatik bideratutako pertsona ahulenei zuzendutako **elikagaien banaketa**, Elikagaien bankua eta Nagusilaneekin elkarlanean eta urtean lau banaketa egiten dira.

Azken 3 urtetan programa honen onuradunak diren familia kopurua aldakorra izan bada ere (140, 208 eta 170 besteak beste), pertsona onuradunek gora egin dute.



Iturria: Zarauzko Udala

Bestalde, Caritas elkarteak elikagaien banaketarako beste programa bat du bere ardurapean, elikagaien bankuaren bitartez, zeinetan asteroko elikagaien banaketa egiten den eta Zarautzen Baratze solidarioan bildutako jakian banatzen dituzten baita ere.

Udalak 2021 urtean "Udal Tasa eta Prezio Publikoen Salbuespen eta Hobariei buruzko Erregelamendu berria" onartu zuen, tarifa sozialaren araudi berri honen bitartez diru-sarrera txikiak dituzten herritarrek hobari garrantzitsuak dituztelarik hainbat udal zerbitzutan.

POBREZIA DESAGERTZEA

Beste administrazio batzuekin elkarlanean eskainitako zerbitzu eta programak

Bazterkeria egoerari erantzuteko zerbitzu eta programak ere ematen dira, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin lankidetzan: Gizarteratzeko eguneko zentroak (gaur egun eskualdean ez dago eta erabiltzaileak Donostiako zentroetara joan behar izaten dute), bazterkeria eta marjinazio-egoeran dauden pertsonentzako egoitza-zentroak.

Bazterkeria egoeran duden pertsona etxegabeei zuzendutako zerbitzuei dagokionez, eskualde mailan zenbait hutsune daude:

- Gaueko harrera zerbitzua eta Oinarrizko premiei erantzuteko eguneko arreta Zerbitzua (zeinaren eskumena eskualdeari dagokion)
- Gizarteratze premiei erantzuteko eguneko zerbitzua (zeinaren eskumena Gipuzkoako Foru Aldundiari dagokion)

Egoeraren azterketa egin eta hutsune horiek betetze aldera, eskualde mailan honen inguruko lanketa burutzen ari da.

EKIMEN ESANGURATSUAK

- **Zarauzko Baratze solidarioa:** Udalak utzitako lur eremu batean, herriko bolondres eta Caritas-ekin elkarlanean, baratzean ekoiztutako barazkiak udalerrian banatzen dira elikagai beharra duten pertsonen artean. Honetaz gain, lanik gabe dauden pertsonen baratzea lantzeko ikastaroak eman zaizkie baita ere, elikagaiak lortzeko tresna gisa.
- **Prestazio ekonomikoak:** Gizarte larrialdi eta banakako laguntzak.
- **Tarifa sozialaren** araudi berria, zeina kultura, hezkuntza, aisia, aniztasun funtzionala eta kiroletan aplikatuko den eta familia ugariari aplikatzen zaizkion hobariak eta zenbait salbuespen mantentzen dituen.
- Bazterkeria arrisku egoeran dauden pertsonen zuzendutako **tutoretzapeko etxebizitza**, 2022an beste bat gehitzea aurreikusten delarik.



ERAGILEEN PERTZEPZIOA

- Herrian bazterkeria arriskuan edo pobrezia egoeran dauden pertsonak ez daudenaren irudia ematen da edo hori sinistu nahi da, inguruko herrietan badaudela, baina bertan ez eta hori ez da errealia, Zarautzen ere badaude egoera zaugarriak dauden pertsonak eta horiek ere kontuan hartu behar dira eta horien beharrei erantzuteko baliabideak jarri.
- Neguetxea eta integrazioa etxea Zarautzen beharrezkoa dela uste da.

ETORKIZUNERA BEGIRAKO JOERAK

Etorkizunari begira, gizarte zerbitzuen alorrean ondorengo lan-ildo edo tendentzia nagusiak identifikatzen dira:

- Ekitatea, helburu bezala lantzea eta jorratzea.
- Bazterkeria egoeran dauden pertsonen zuzendutako arreta eta baliabideen eredu berriaren inguruko lanketa.